

Smart Rural Communities (SRC): ¿Hacia un nuevo modelo de desarrollo rural 'inteligente' en cooperación internacional para el logro de los ODS?



12.Ira - 13.Ira

Kod. G23-19

Edizioa
2019

Jaduer a mota
Eskola

Data
12.Ira - 13.Ira

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Gaztelera

Balio akademikoa
20 ordu

Web
<https://www.igorcalzada.com/smart-rural-communities-action-research-intervention-project-in-colombia-latin-america-mozambique-africa/>

ZUZENDARITZA

Igor Calzada Múgica, Universidad de Oxford, Lecturer, Research Fellow, and Policy Adviser

Fernando Mudarra Ruiz, Fundación Ayuda en Acción

Antolakuntza Batzordea

Fundación **BBVA**



Azalpena

Eskala globalean gertatzen ari den hirien hazkunde esponentzial eta asimetrikoak bi 'mantra' sortu ditu: alde batetik, *'hirien mundu batean bizi gara, gero eta gehiago'*; bestetik, eta modu ia osagarri batean ziurrenik, *'hiriek eta komunitateek adimendunak izan behar dute'*. Egia bada ere biak ala biak bat datozela errealitate globalarekin, ñabardurak egin behar zaizkie baieztapen horiei.

Garapenerako lankidetzaren alorrean, eraldaketa eta disrupzio hauek mehatxutzat hartzen ari dira (landa eremuen atzerapena, arrakala soziala eta digitala handituz herrialde garatuei dagokionez), baina baita aukera gisa ere, komunitateetan estrategikoki eta operatiboki lan egiteko modua birpentsatzeko ('smart' kontzeptuari buruzko diskurtsoa birformulatzeko aukerari dagokionez, ikuspegi inklusiboago batean, zuzenki lotuta GJHekin).

Testuinguru horretan, garapenerako lankidetzaren nazioarteko agendak planteatzen dituen desafio berriei erantzuteko, *Smart Rural Communities* (SRC) programa sortu zen Euskadin, 2017an, hainbat sektore eta sentsibilitateren elkarlanaren fruitu gisa: (i) gizarte ekonomian oinarritzen diren sektore enpresariala eta industriala, (ii) garapenerako lankidetzarena, eta (iii) politika eta aldaketa estrategikoetara orientatutako zientifiko-akademikoa. SRCren helburua da integratzea lankidetzaren proiektuetan emandako urteetan ikasitakoa, landa eremuek egun eskatzen dituzten garapen ikuspegiak eta berrikuntzak alor teknologikoan eta sozialean dakartzan aukera berriak. Lurralde garapen eredu berri bat modelizatu nahi du, probatu eta eskalen bidez eman, eremu horietan bizi diren pertsonen berrikuntza sozialerako gaitasunean oinarrituta (tresna egokiak dituztenean sortzen den gaitasuna).

SRC programa lankidetzaren arloko desafio multi-agente bat da (*multistakeholder*), honako hauen artean: Mondragon Korporazioaren MISE dibisioa, GKEak, Ekintzaz Lagundu, Mundukide eta Oxfordeko Unibertsitatea, Kolonia eta Mozambikeko tokiko eragileekin eta landa komunitateekin batera.

SRC Uda Ikastaroa gizartera zabalduko koprodukzio gune gisa aurkezten da, SRC eraikuntza prozesua bera partekatuz parte hartzaile/ikasleekin. Ez da oinarri teorikoko Uda Ikastaro bat, baina ezta kasuen aurkezpenean oinarritutako ikastaro bat ere.

Horregatik, ikastaroko parte hartzaileak/ikasleak jatorri askotarikoak izan daitezke: kooperatzaileak, garapenerako lankidetzaren profesionalak, kudeatzaile publikoak, proiektuen kudeatzaileak, enpresa teknikariak, ikertzaileak, artistak, aktibistak, gizarte ekintzaileak, teknologoak, ingeniariak, antropologoak, soziologoak, zientzia natural, ingurumen zientzia eta lurralde zientzietako pertsonak, abokatuak, programatzaileak, psiko-pedagogoak...

Ekintzaz Lagundu Fundazioak antolatutako ikastaro honek nazioarteko izaera izango du, eta aukera ezin hobe izango da beste modu batean nekez elkartzeko lurralde hainbat sektore eta jatorritako pertsona ugariaren ekarpena biltzeko. Kontuan hartuko ditugu GJHe hartu duten garrantzia, Ekintzaz Lagundu Fundazioa egiten ari den lanaz gainera, abiapuntu izan daitezkeenak ibilbide zabalago bati begira.

Helburuak

Landa komunitateen erronkak ulertzea eta estrategikoki identifikatzea gero eta urbanoagoa den eta interkonektatuago dagoen mundu batean, baina aldi berean arrisku globalen mende ere badagoena.

Globalari buruz eta tokikoarekin duen konexioari buruz eztabaidatzea, kasu errealak erabilia (hiritarrak eta landatarrak), baita haien arteko arrakala ere, kontuan izanik 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) eragina politika globaletan, eskualdekoetan eta tokikoetan.

Eztabaida berri, esperimental eta disruptibo bat bultzatzea hainbat profil eta sentsibilitateren artean: GKEak, enpresak, erakunde publikoak, akademia, teknologiak, ekintzaileak... komunitate ikuspegitik eta denbora errealean koproduzitzeko *Smart Rural Communities* (SRC) programa.

Ezbaian jartzea "teknologia adimendunak" garapenean dauden landa eremuetan sartzearen ondorioak eta kritikoki eraikitzea alternatibak "lurralde garapen adimendun" eredu bat sortzeko. Eredu horren helburua,

landaren eta hiriaren arteko arrakalak txikitzea ez ezik, aurrerapen "olatu" bat sortzea ere izango da, landa inguruneen etengabeko hobekuntza ziurtatuko duena, beren igurikapenetan oinarrituta, beren giza kapitalaren gehiengoa inplikaturik eta ingurunearen jasangarritasuna ziurtatuta.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Zuzendariak



Igor Calzada Múgica

Universidad de Oxford, Lecturer, Research Fellow, and Policy Adviser
(Oxford, Reino Unido)

Dr Igor Calzada, MBA, FeRSA (www.igorcalzada.com/about) es Investigador Senior, Profesor y Asesor de Políticas de la Universidad de Oxford (Reino Unido) en programas Transformaciones Urbanas ESRC y Futuro de las Ciudades en COMPAS. Además, es profesor del Master en Ciudades Globales Sostenibles en el Instituto de Ciudades Futuras en la Universidad de Strathclyde en Glasgow (Reino Unido). Fue profesor de la Universidad de Aston en Birmingham (Reino Unido), Nevada (EE.UU.), Helsinki (Finlandia), Mondragón (Euskadi) y Universidad Libre de Bruselas (Bélgica). Su investigación compara procesos sociales, económicos, democráticos y políticamente innovadoras en ciudades y regiones, particularmente sobre descentralización regional y metropolitana. Publica y es editor en journal científicos de prestigio sobre lo regional, lo urbano y lo político. Ha sido director y ponente en numerosas ediciones de los Cursos de Verano. Trabajó en el grupo cooperativo MCC y fue director en el Gobierno Vasco.



Fernando Mudarra Ruiz

Fundación Ayuda en Acción

Irakasleak



Clara Arpa



joaquín Avilés López

Co Fundador de Infrastructure for Sustainable Development (i4sd) (NY) Desde i4sd asesora a entidades públicas y privadas en planificación y desarrollo de infraestructuras sostenibles con el foco en impacto social y medioambiental positivo. Amplia experiencia en la planificación, diseño, supervisión y evaluación de proyectos de infraestructura para el desarrollo sostenible: Energía, Transporte, Agua y Saneamiento y TIC, Ciudades Inteligentes, asociaciones público-privadas (APP) y en programas de desarrollo internacional multisectoriales a nivel de Sede-Región-Campo en diversas organizaciones como P3 Global Management, Millennium Promise Alliance o The Earth Institute at Columbia University.



Antonio Calçada da Sá



Nicolás Jiménez



Karen Langton



Gonzalo Martín-Villa



Andrea Meza Murillo

Directora de Cambio Climático del Ministerio de Ambiente y Energía de Costa Rica Previo a asumir su cargo trabajó por más de 15 años como consultora internacional en proyectos de desarrollo sostenible, desarrollo territorial, y cambio climático para el BID, Unión Europea, y diversos Gobiernos de Latinoamérica. Es abogada con un post grado en Desarrollo Local. En Costa Rica apoyó a la DCC en la formulación del Plan de Acción de la Estrategia de Nacional de Cambio Climático, y los procesos de negociación con Ministerios Sectoriales (MOPT, MAG, MIVAH, MIDEPLAN, Hacienda), para la adopción de metas en mitigación y adaptación, formulación de NAMAs, procesos de coordinación interinstitucional.



Paul Ortega Etcheverry

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.



Reina Patricia Mendez

Matrikula prezioak

MATRIKULA

2019-09-12 ARTE

[MATRIKULA DOAN](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa